



EBAZPENA, 2007KO MAIATZAREN 9KOA, HEZKUNTZA SAILBURUORDETZARENA, HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO HERRI IKASTETXEETAN 2007-2008 IKASTURTEKO ESKOLA-EGUTEGIA EGITEKO OINARRIZKO ARAUAK EMATEN DITUENA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2006ko maiatzaren 10eko Aginduak, (2006ko ekainaren 1eko EHAA), EAeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen eskola-egutegiek bete beharreko arautegia ezartzen du. Erabaki honen bidez, Haur eta Lehen Hezkuntzako Herri Ikastetxeentzat 2007-2008 ikasturterako arauak zehaztu egiten dira.

Ondorioz, maila horietako herri ikastetxeen egutegiak ondoren aipatzen denara egokituko dira:

1.- Ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenari dagokio eskola-egutegia onartzea. Jantokia edota garraioa batera erabiltzen dituzten ikastetxeak, ados jarriko dira egutegia egiterakoan.

2.- Ikasleek 880 irakastordu jasoko dituzte gutxienez, 176 egunetan banatuta, ekaineko azterketetarako erabilitakoak barne. Kopuru hauetatik “S. José de Calanz” eguneko jaia eta lurraldeko bi jaiegun kendu ahal izango dira. Jaiegun hauek beste egun batean ospatu ahal izango dira.

Irailean eta ekainean arratsaldeko saioa kendu ahal izango da, goizeko saioa, gehienez, lau ordotara luzatuz. Gauza bera egin daiteke Gabonetako eta Aste Santuko oporraldien aurreko klase-egunean.

Bost ordu baino gehiagoko irakastegunak onartu ahal izango dira, baldin eta ikasturte osoan zehar (urritik maiatzaren bukaerara) egiten badira eta ikastetxearen ordutegia Hezkuntza Sailburuordearen 2006ko uztailaren 26ko Ikasturte Hasierako Erabakiaren III.1 atalak dioenaren arabera onartuta badago.

O.O.G.ak onartuz gero, astean arratsalde bat (ostiralekoa izan ezik) prestakuntza ekintzetarako erabil daiteke.

Dena den, irakasleak asteko 30 orduz egongo dira ikastetxean.



3.- Eguberritako oporraldiak 2007ko abenduaren 22tik 2008ko urtarrilaren 6rarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

Aste Santuko oporraldiak, 2008ko martxoaren 20tik 24ra bitarteko aldia, gutxienez, hartuko du, bi egun horiek barne.

4.- Irakasleak irailaren 3ean ikastetxeratuko dira eta ekainaren 30erarte bertaratuko. Uztailean eta abuztuan ez da irakaslanik izango. Uztailean eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste aldietan, abuztuan salbu, zuzendaritza talde kide bat, gutxienez, berehala lokalizatzeko moduan egongo da.

5.- Irakasleek irailaren lehenengo egunetan ikasturtearen prestakuntza egin dezaten, klaseak ez dira irailaren 10a baino lehen hasiko.

Irailaren 3tik klaseak hasten diren bitartean, Lehen Hezkuntzako lehen zikloko curriculumaren eduki berriei buruzko prestakuntza jasoko dute irakasleek; halaber, 2007-2008 ikasturte hasieratik hezkuntza etapa horri dagokion arautegi berriari buruzko prestakuntza ere jasoko dute.

Ikasturtearen azken astean, ekainaren 22tik aurrera, ez da klaserik izango, beste ekintza batzuetarako erabiliko delarik: Ikastetxeko Plana ebaluatzeko, Ikasturtearen Oroitza prestatzeko eta beharrezkoak diren administrazio-agiriak betetzeko.

6.- Euskal Autonomi Elkarteko lan-egutegian jaiegun gisa azaltzen direnak jaiegun hartuko dira eskola-egutegian ere. 2008 urteko Euskal Autonomia Erkidegoko lan-egutegia onartzen ez den bitartean, eskola egutegiak honako jaiegun hauek izango ditu behin behineko izaeraz:

urtarrilak 1
martxoak 19
martxoak 20
martxoak 21
martxoak 24
maiatzak 1
uztailak 25
abuztuak 15
azaroak 1
abenduak 6
abenduak 8
abenduak 25



7.- Eskola emankizunak halabeharrez eteten badira, Ordezkaritza Organo Gorenak ordu horiek nola berreskuratu erabakiko du. Hartutako erabakiaren berri Hezkuntza Ikuskaritzari emango zaio.

8.- Eskola-egutegiaren tramitazioa 2006ko maiatzaren 10eko Hezkuntza Sailburuaren Aginduko 8. artikulua araberako egingo da.

Ikastetxeek, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako espreski diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz egin behar dute proposamena, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dien argibideak jarraituz.

9.- Ikastetxeek eskola egutegia prestatzen ez dutenean edo prestatutakoa onartzen ez denean, Lurralde Ordezkaritzak eginikoa bete beharko dute.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko maiatzaren 9a

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

Izpta.: Pedro Maria Ochoa Bernales